



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	ARTE HEZKUNTZA						DATA	2016-2017
MAILA				2.ZIKLOA				
1	ARLOAREN GUTXIENeko HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							

- Oro har, ikusizko kulturako eta musika-kulturako arteek eta produktuek ideiak, sentimenduak eta bizipenak jakinarazteko eta adierazteko eskaintzen dituzten aukerak ulertzea. Arte eta produktu horiek Euskal Herriko eta oro har herri guztietako ondarea eratzen duten elementutzat hartzea, eta, horrela, artea eta kultura ezagutzen eta gozaten laguntzea.
- Arte-hizkuntzen tekniken, baliabideen eta arauen oinarritzko ezagutza eta jakintza izatea. Teknologiek eskaintzen dituzten aukerak irakastea, sorkuntzetan eta haien erantzunak egiten erabiltzeko, eta, horrela, maila bateko autonomia lortzea arte-hizkuntzaren bidezko komunikazioan.
- Arte-adierazpenen teknikak, baliabideak eta arauak ikertzea eta aztertzea, ikusizko kulturako eta musika-kulturako lanetan, lan horiek hobeto ulertzeko eta lan horiez gehiago gozatzeko, eta erreferente estético berriak garatzeko aukera izateko. Horrez gainera, arte hizkuntzaren eremua zabaltzea.
- Pentsaera dibergentearen eta konbergentearen trebetasunak eta norberaren eta besteren ideiak eta sentimenduak berregiteko ekimena, irudimena eta sormena erabiltzea, beharrezko prozesuak antolatuz, arte-ekoizpeneko lanetan erabili ahal izateko.
- Gai izatea sorkuntza-proiektuak eta -lanak garatzean emaitza jakin batzuk lortzeko egin beharrek prozesuen plangintza egiteko, ebaluatzeko eta doitzeko, eta horrek guztiak eskatzen dituen erronken jakinaren gainean egotea. Horrez gainera, arazoak sortuz gero, jarrera eraikitzaillez konpontzea.
- Arteen eta ikusizko kulturako eta musika-kulturako produktuen funtzio sozialak eta erabilerak ezagutzea, eta norberaren eta besteen esperimenduetan ezagutzea, produktu horiek hainbat garai eta kulturatan izan dezaketean eta izan duten zeregina ulertzeko eta norberaren kultura-ondarea eta inguruko beste kulturen ondarea ezagutzeko.
- Ikusizko arte-ekoizpenak eta musika-ekoizpenak eta ekoizpen horiek sortu diren garaiaren eta tokiaren ezaugarriak lotzea, ekoizpenen arte-balioa ulertzeko, bai eta garai edo gizarte-talde baten adierazpen gisa ekoizpenek izandako balioa ere. Horrela, arte-ekoizpenaren eta ekoizpenak ingurune fisikoan eta gizarte-ingurunean duen oihartzunaren eta esanahiaren balioa ezagutzeko eta kritika-prozesuak hasteko bideak irekiko dira.
- Taldeko arte-jardueretan parte hartzea, besteren ekimenei eta ekarpenei laguntzea eta ekimen eta ekarpen horiek aintzat hartzea, errespetatzea eta elkartzunez jokatzeko, arte-emaitza ona lortzen lagunduko duten lankidetzako eta talde-laneko trebetasunak garatzeko eta, gizartearen alderditik begiratuta, garapen pertsonala izateko.
- Norberaren artelanetan konfiantza izatea, lanak egiten gozatzeko eta norberaren eta taldearen hazkunderako egiten duen ekarpena aintzat hartzea, autoestimua sendotzeko eta ideiak eta sentimenduak adierazteko gaitasuna hobetzeko.
- Euskal kultura-ondarearen eta beste herri batzuetako ondarearen arte-adierazpenak ezagutzea eta balioestea eta adierazpen-moduak gordetzeko eta berritzeko egindako lana aintzat hartzea. Kontuan hartzea zer nolako aberastasuna ematen duen hainbat kulturatako pertsonekin trukea izateak.



2

EDUKIEN DENBORALIZAZIOA

1. ebaluazioa

PLASTIKA

Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

- Van Gogh. Lan teknikak: Ikus entzunezko materiala erabiliz, Vincent Van Gogh-en bizitza eta obren ezaguera.

- Van Gogh-en erretratu pertsonala margotu.
- “La habitación” arte lana DIN A4ko eskalan kpiatu eta kolore hotzekin edo beroekin margotu.
- “La noche estrellada” ezagutu eta margotu.
- “Los girasoles” ezagutu eta margotu.

- Nestor Basterretxea. Lan teknikak: Ikus entzunezko materiala erabiliz, Nestor Basterretxearen bizitza eta obren ezaguera.

- “Olatu” artelana marraztu eta kolore errealistak lortu.
- Taldeka “Olatu” artelanaren maketa erreala sortu, eskala txikian kartoi eta kartulina erabiliz.

- Koloreak. Lan teknikak: kolore primario eta sekundarioen ezaguera. Kolore beroak eta hotzak identifikatzea.

2. ebaluazioa

PLASTIKA

Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

- Inauterietarako mozorroen prestaketa (talde-lana).

Irudiak eta objektuak egitea, ideiak eta sentimenduak adierazteko, eraldaketa grafiko-plastikoak abiapuntu hartuta.

- Marrazketa pausoz-pauso. Lan teknikak: animaliak eta irudi desberdinak sortu lerro eta forma geometrikoetatik abiatuta.

MUSIKA

- Gorputz perkusioa. Lan teknikak: musika interpretatu eta adierazteko modu bereziak.

- Erlaxazioa: Lan teknikak: erlaxatzeko eta musikaz lasai gozatzeko jardura desberdinen lanketa.

- Ezaguera musikala. Lan teknika: familia musikalen ezaguera; kordazko familia eta kordazko instrumentuak.

- Soinuaren elementuak. Lan teknikak: luzera eta tinbrearen berezitasunak ikasi eta gaur egungo adibideekin identifikatu eta adierazi.

- Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa.

3. ebaluazioa

PLASTIKA

Arte plastikoen eta ikusizko arteen ekoizpena, adierazpena eta sorkuntza.

- Eskulana. Lan teknikak: Material birziklatuarekin sortutako arte lana burutu.

MUSIKA

- Ezaguera musikala. Lan teknika: familia musikalen ezaguera; perkusio familia eta perkusiozko instrumentuak.

- Ezaguera musikala. Lan teknika: familia musikalen ezaguera; perkusiozko familia eta perkusiozko instrumentuak.

- Erritmoak. Lan teknikak: Bikoa, hirukoa eta laukoa. Identifikazioa eta adierazpena jardueren bidez.

- Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena.

- Abestea. Lan teknikak: kantak ikasi eta klasean abestu. Euskal kantak. Hutsuneak bete.



Lan plastikoetan erabilitako materialen eta tekniken behaketa, eta loturak egitea intenzionalitatearekin eta ekoizpen-testuinguruarekin.

- Gabonetakorako eskulanak (bakarka).

MUSIKA

● Instrumentuak. Lan teknikak: instrumentuen ezaguera. Triangelua erailtzen ikastea.

● Dantza. Lan teknikak: beroketa dantza. Dantza aktiboa. Mugimenduen garapena.

● Zeinu musikalak. Lan teknikak: musikako elementu guztien errepassoa eta erabilera sustatu. Jarduera praktikoak burutu.

● Soinuaren elementuak. Lan teknikak: intentsitate eta altueraren berezitasunak ikasi eta adibideen bitartez identifikatu eta adierazi.

● Ezaguera musikala. Lan teknika: familia musikalen ezaguera; haizezko familia eta haizezko instrumentuak.

● Abestea. Lan teknikak: kantak ikasi eta klasean abestu. Euskal kantak. Gabonetako kanta.

Mugimenduen garapena.

- Abestea. Lan teknikak: kantak ikasi eta klasean abestu. Euskal kantak. Hutsuneak bete.

**EBALUAZIO IRIZPIDEAK**

- Arte-gertaerak hainbat gizarte eta garai historikotako kulturaren oinarritzko elementutzat eta komunikazio- eta adierazpen-modu unibertsaltzat hartzea.
- Adierazpen- eta komunikazio-asmoak garatzea, teknikak eta oinarritzko prozedurak jakinaren gainean erabiliz.
- Arte-ekoizpenen motak ikustea eta ulertzea, eta prozesuak ondorioztatzen eta zergatik gertatzen diren jakiten saiatzea.
- Ideiak, sentimenduak, bizipenak... sormenez eta modu originalean irudikatzea.
- Garatuko den proiektuari buruz gogoeta egitea, eta proposamenaren eta norberaren interesen arabera antolatzea.
- Ikusizko irudien eta irudi soinudunen esanahiak eta erabilerak identifikatzea eta bereiztea, alderdi kulturalak, sozialak eta pertsonalak kontuan hartuta.
- Ikusizko hainbat ekoizpenetako eta musika-ekoizpenetako alderdi nabariak arrazoi teknikoekin, materialekin... lotzea, eta garai historiko eta kultura-garai jakin bateko adierazpentzat hartzea.
- Taldean artelanak egiten parte hartzea, arauak errespetatuz, proposamenak eginez eta konponbideak bilatuz.
- Arteen bidez adierazteko eta komunikatzeko aukerak balioestea, eta ongizatearen eta garapen pertsonalaren iturritzat hartzea.
- Hainbat kulturatako arte-adierazpenak elkarrekin lotzea, eta bakoitzaren berezitasunak balioestea.

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Musika irakasgaiko kalifikazioaren portzentajea honelako da:

- **Edukiak: % 20** (Edukien barneraketa frogatzeko jarduerak, lanak eta jolasak. Banakako eta taldeko lanak...)
- **Prozedurak: % 40** (Lan taldeak burutzeko jarraitutako prozesua, sormena, koaderno eta fitxen ordena eta txukuntasuna, jarduera musikalak burutzeko era, parte hartzea, sormena...)
- **Jarrera: % 40** (Parte hartzea, interesa, lan egiteko nahia, errespetua bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko...)

Plastika irakasgaiko kalifikazioaren portzentajea honelakoa da:

- **Prozedurak: % 50** (Lanaren garapena pauso zuzenak jarraituz, materialaren erabilera, beharrezkoak diren tresnen erabilera, lanaren azken emaitza...)
- **Jarrera: % 50** (Lanaren eta materialaren ardura, errespetua bai irakasgaiarekiko, bai ikaskideekiko eta bai irakaslearekiko, materialaren ordena eta zainketa, bakarkakoa eta kolektiboa, ordena, lana ondo burutzeko interesa, garbitasuna lan egiteko eremuan...)